



“ALTZAKO HIRI BERRONERATZEKO REAKTIVA-T KOLEKTIBOAK PROGRAMA.” EGITASMOAREN OINARRI ARAUTZAILEAK, HIRI BERRONERATZE INTEGRALEKO PROIEKTUEI LOTUTAKO GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO PRESTAKUNTZA, ENPLEGU, ORIENTAZIO ETA LAGUNTZA PROIEKTUETAN PARTE HARTZEN DUTEN LANGABEEN KONTRATAZIOA SUSTATZEKO, 2022-2024 INBERTSIO ESTRATEGIKOEN PLANAREN BARRUAN. (ESP.: 2022/01258) (A/20220498).

ATARIKOA

Donostiako Sustapena SA Donostiako Udalaren garapen ekonomikorako sozietatea da, eta, besteak beste, hiriaren garapen ekonomikoa eta soziala bultzatzea du helburu. Hori lortzeko, batez ere kohesio eta jasangarritasun irizpideei jarraitzen die. Bide horretan, lankidetzeta eta solaskidetzeta bilatzen du hiriko eragileekin, eta proiektu berritzaileak garatzearen aldeko apustu irmoa egiten du, hiria eraldatzeko eredu gisa.

2011z geroztik, Donostia Sustapenak eta Donostiako Udalak tresna bat baliatzen dute estrategia hori —hau da, Ekonomia Bultzatzeko Plana— urtean-urtean ezarri ahal izateko.

Tresna horri esker, hirian bertan ageri diren erronka sozial eta ekonomikoei aurre egin ahal izan zaie azken 12 urteetan, baina baita erronka globalei ere. Hori horrela, areagotu egin ditu lehiakortasuna eta posizionamendua.

2022an, kolektibo behartsuen enplegua eta enplegarritasuna hobetzearen alde egindako apustuan (hau da, iraupen luzeko langabeei, 45 urtetik gorakoei, emakumeei, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dutenei, 35 urtetik beherako gazteei eta abarri zuzendurik), Donostia Sustapenak 1,7 milioi euro bideratu zituen kontrataziorako laguntzetan. Hori horrela, 282 kontratazio egiteko laguntza eskaini zuen (% 66 emakumeak), 508 pertsona artatu zituen orientazio zerbitzuetan (horietatik 200 lagun 45 urtetik gorakoak ziren), eta 127 pertsonak parte hartu zuten enplegarritasuna hobetzeko prestakuntza ibilbideetan.

2023an, zenbait faktorek markaturiko testuinguru sozioekonomiko global konplexua gorabehera (Ukrainako gerra, inflazioa, eta abar), langabeziak bilakaera positiboa izan du Donostian (2022ko % 7,9tik 2023ko apirileko % 7,6ra).

Hala ere, langabeziak kalteberatasun handiagoko kolektiboetan jarraitzen du kontzentratuta Donostian: 2023ko apirileko datuen arabera, 6.650 langabe daude erregistratuta, eta desoreka ageri da emakumeen eta gizonen artean (emakumezkoak dira 3.766 langabe, hau da, % 56,3; gizonezkoak berriz, 2.884 dira, % 43,7). Alegia, % 1,7ko genero arrakala ageri da hiriko emakumeen eta gizonen langabezia tasan.

Bestalde, datuen analisiak adierazten du langabezia dauden pertsona gehienak iraupen luzeko emakume langabeak direla (% 45,4), eta egoera hori bereziki areagotzen da adin handiagoko pertsonetan eta emakumeetan.

Aldi berean, 45 urte edo gehiagoko pertsonak osatzen dute Donostiako langabeziaren % 59,9. Horietatik % 57 emakumeak dira, eta, gainera, gehiengoak dira langabeen kolektibo guztietan, 25 urtetik beherako gazteen artean izan ezik.

Azkenik, datuek erakusten dute langabeziak inpaktu berezia duela tokiko gazteen artean, batez ere 25 eta 34 urte bitartekoen artean. Biztanleria Jardueraren arabera Sailkatzeko Inkestako (BJAI) datuen arabera, langabezia % 11,5etik gorakoa da kolektibo horretan.

Hori horrela, talde horietara guztietara bideraturik jarraitu behar da lanean, hiriko enpleguaren bilakaera eta biztanleen bizi kalitatea hobetzen jarraitzeko.

Pertsona horien enplegagarritasuna eta laneratzea sustatzeko, Donostia Sustapenak oinarri arautzaile hauek proposatzen ditu, Eusko Jaurlaritzaren 2022-2024 aldirako Inbertsio Estrategikoen Erakundearteko Planaren barruan, Altzako Hiri Berroneratze Integralerako Proiektuarekin lotutako gizarteratze eta laneraterako Prestakuntza, Enplegu, Orientazio eta Laguntza Egitasmoaren esparruan.

Proiektuaren helburu orokorra da Altza auzoko eremu kalteberen berroneratze jasangarria sustatzea, eta, horretarako, diziplina anitzeko ikuspegi integrala baliatzea, eraikinetan, hiri ingurunean eta gizarte eremuan esku hartzearen bidez.

Proiektuak ingurumen, gizarte, ekonomia, hiri eta gobernantzarekin loturiko alderdiak biltzen ditu, eta, horretarako, auzo kalteberetan esku hartzen du. Hori horrela, inbertsioaren alde egiten du, suspertzeko, eraldatzeko eta erresilientziarako eragile gisa, eta, hartara, erantzuna ematen die Europar Batasuneko, estatuko eta autonomia erkidegoko xedapenetan eta zuzentarauetan jasotako hiri berroneratzeko eskakizunei. Prestakuntza, enplegu, orientazio eta laguntzaren arloko jarduketek hiriko pertsona kalteberak lan munduan txertatzen laguntzen dute, eta kontratazioak Altza auzoko berrurbanizazio eta hiri berroneratze integraleko jarduketekin lotzen dituzte. Hala, ukituriko biztanleriaren gizarte, enplegu eta prestakuntza baldintzak hobetzen eragiten dute.

Enpleguaren alorrera etorrira, helburua da lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten langabeei laguntzea enplegua lortzen. Horretarako, laguntza pertsonalizatua, lan orientazioa eta prestakuntza eta ziurtapen profesional transbertsala eskainiko zaie, fabrika eta estalkietako igeltserotza eragiketa osagarrietan. Oinarri arautzaileek Donostiako biztanleria aktibo langabearen kontratazioa bultzatzen lagunduko dute, eta lehentasuna emango zaie Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta/edo Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera jasotzen dutenei bai eta iraupen luzeko enplegu eskatzaileei ere, eraikuntzaren sektorean. Parte hartzaileek Eusko Jaurlaritzak homologatutako profesionaltasun ziurtagiriak lortuko dituzte, bai eta lan merkatuan sartzeko aukerak areagotzen laguntzen duten gaitasunak ere.

XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA. XEDEA

Laguntza hauen helburua da enplegua eskatzen duten langabeak laneratzeko laguntzea — batez ere Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta/edo Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera jasotzen duten pertsonak eta iraupen luzeko langabeak—, baldin eta igeltserotzako eta pinturako langile gisa kontratatzen badituzte eraikuntza sektorean eta Donostiako Altxa auzoan garatzen badituzte proiektuak.

2. ARTIKULUA. PROGRAMAREN DESKRIBAPENA

Artikulu honetan, enplegu prestakuntzako programa zertan datzan deskribatzen da, eta egutegi orientagarri bat aurkezten da.

- **ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA PROGRAMA:** hautatutako pertsonen enplegarritasuna hobetzeko ibilbide bat egingo dute 12 hilabete zehar, bi fasetan: hasierako fasea (prestakuntza) eta ikas-ekinezko prestakuntza kontratuaren fasea.

Zuzkidura ekonomikoa: Parte hartzaileek jasoko duten zuzkidurari dagokionez, batetik, pizgarri **beke** bat izango dute hasierako fasean (prestakuntza, 2 hilabete), bai eta **soldata** bat ere ikas-ekinezko prestakuntza kontratuari lotuta (kontratu fasea – 10 hilabete).

Enpresa onuradunek laguntza ekonomiko bat jasoko dute, programa honetan egindako kontratazioen soldatak eta enpresaren kargurako Gizarte Segurantzako kostuak estaltzeko.

Hasierako prestakuntza fasea (2 hilabete): Proiektuaren hasierako faseak 2 hilabete iraungo du, eta gaitasun soziolaboraleko prestakuntza soilik eskainiko du. Fase horretan, pertsonen kontratuaren aurreko prestakuntza jasoko dute, eta talde kohesioa eta enplegurako trebetasunen garapena landuko dituzte. Aldi horretan, enpresek alde aurretik hautatzen dituzten pertsonen egunean 9 euro jasoko dituzte, enplegua sustatzeko pizgarri gisa eta prestakuntzan parte hartzen duten egun bakoitzeko, dieta eta garraio gisa, besteak beste (kalkulatu da 40 eguneko prestakuntza zenbatuko dela).

Hasierako prestakuntza fasea 2023/12/01etik 2024/01/31ra bitartean egingo da.

Ikas-ekinezko prestakuntza kontratuaren fasea (10 hilabete): Enpresa onuradunek zuzkidura ekonomiko bat jasoko dute ikas-ekinezko prestakuntza kontratuko erregimenean dauden pertsonak kontratatzeko. Enpresa horiek ikas-ekinezko prestakuntza kontratu bat egingo diete alde aurretik hautatutako langabeei. **Kontratu horrek 10 hilabete iraungo du; prestakuntza lanaldiak iraupenaren % 35 hartuko du, eta enpleguak, berriz, % 65.** Laguntza ekonomiko horren baldintzak eta izapidetzea oinarri arautzaile hauen 2. kapitulu zehazten dira.

Kontratazio fasea 2024/02/01etik 2024/11/30era bitartean egingo da.

Kontratuaren barruan azpifase hauek garatuko dira:

PRESTAKUNTZAKO AZPIFASEA (% 35): Kontratuaren lehen bi hilabeteetan, eraikuntzako eta obra zibileko **1. mailako fabrika eta estalkietako igeltserotzako eragiketa osagarrien profesionaltasun ziurtagiria egingo dute 10 pertsona horiek** (280 orduko iraupena du). Kalkuluen arabera, egunean 6 ordu izango dira, astelehenetik ostiralera, 2024ko otsailean eta martxoan, eta gainerako 8 hilabeteetan (2024ko apiriletik 2024ko azarora bitartean), berriz, lanpostuari lotutako prestakuntza osagarria egingo dute. Bi horietan, lanaldiaren % 35 egingo dute.

LAN JARDUERAREN AZPIFASEA (% 65): Kontratuaren gainerako zortzi hilabeteetan —hau da, 2024ko apirilaren 1etik 2024ko azaroaren 30era arte—, langileek Altza auzoko enpresa kontratatzailean lan egingo dute, igeltserotzan eta lanaldiaren % 65ean, eta eraikinak mantentzeko lanetan jardungo dute, Altzako Hiri Berroneratze Proiektuaren barruan.

- **3. fasea: LANEKO LAGUNTZA ETA ORIENTAZIOA:** Modu transbertsalean eta hamabi hilabetez, parte hartzaileek lan orientazioko eta laneratzen laguntzeko saioak egingo dituzte enplegu prestakuntzako proiektu osoan zehar.

Laguntza fasea 2023/12/01etik 2024/11/30era bitartean egingo da.

- **LANERATZE PROZESUAREN JARRAIPENA:** Prestakuntza amaitu eta hilabetera —hau da, 3 hilabetera eta 6 hilabetera—, 10 lagun horietako bakoitzaren jarraipena egingo da, enplegarritasuna hobetzeko prozesuak eta/edo proiektu bakoitzean sartzeak izango duen inpaktuaren berri izateko.

Programa hobeto gauzatzeko aldera, Donostia Sustapenak berea du adierazitako datak aldatzeko eskubidea.

Interesa duten enpresek Donostia Sustapenarekin harremanetan jarri beharko dute programan sartzeko, eta eskaera bat formalizatu beharko dute www.fomentosanbastian.eus webgunearen bidez, **2023ko azaroaren 15a baino lehen**.

Parte hartu nahi duten enpresek eskaintza bat argitaratu beharko dute Lanbideren webgunean igeltserotzako langile posturako, eta, Donostia Sustapenarekin batera, Donostiako langabe bat hautatu beharko dute, Lanbiden inskribatuta eta alta emanda dagoena, kontuan hartuta lehentasuna izango dutela Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta/edo Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera jasotzen dutenek eta/edo iraupen luzeko langabeek.

Enpresek aipaturiko 10 pertsonak aukeratu ondoren, parte hartzaileen behin betiko zerrenda jakinaraziko zaio Eusko Jaurlaritzari, bai eta erreserban geratu diren 5 pertsonena ere.

Programan parte hartu nahi dutenek Lanbide.eus webgunean argitaratutako eskaintzetan izena eman beharko dute, eta hautaketa prozesua gainditu.

3. ARTIKULUA. KOFINANTZATZEA ETA BESTE LAGUNTZA BATZUEKIKO KONKURRENTZIA

Laguntza hauek **gizarteratzeko eta laneratzeko Prestakuntza, Enplegu, Orientazio eta Laguntza Proiektuaren barruan daude finantzatuta, eta 2022-2024 aldirako Inbertsio Estrategikoen Planaren barruko hiri-berroneratze integraleko proiektuei lotuta, zeinak Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak kofinantzatzen baititu.**

1. KAPITULUA – PROGRAMAN PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONAK

Kapitulu honetan, programan parte hartzeko baldintzak, betebeharrak eta prozedurak artikulatzen dira.

4. ARTIKULUA. PROGRAMAKO PARTE HARTZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Parte hartzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- **Parte hartzaileek hautaketa prozesua gainditu beharko dute**, zeina enpresa, Donostia Sustapenaren eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren artean egingo baita. **Horretarako, izena eman beharko da 2023ko urriaren 1etik azaroaren 15era bitartean**, enpresa bakoitzak Lanbideren webgunearen bidez igeltserotza eta pintura langile posturako argitaratzen eta kudeatzen duen eskaintzan. Eskaintza hori REAKTIVA-T PROGRAMA. HIRIA BERRONERATZEKO ALTZAKO KOLEKTIBOAK testuarekin identifikatuko da.
- Parte hartzaileek enplegu prestakuntzako proiektuaren bi faseak egin beharko dituzte: prestakuntza eta kontratazioa, eta, horrekin batera, orientazio eta laguntza integrala eta pertsonalizatua emango zaie parte hartzaileei prozesu osoan zehar. Proiektu honen fase guztiek 12 hilabete iraungo dute.
 - Lehenengo bi hilabeteetan, hautaketaren ondoren, hasierako fasea izeneko prestakuntza egingo da lan kontratuaren aurretik, zeina Donostia Sustapenak egingo baitu. Hasierako fase horrek 2 hilabete iraungo du, eta gaitasun soziolaboraletan trebatzeko soilik izango da. Fase horretan, pertsonak kontratuaren aurreko prestakuntza jasotzen dute, eta talde kohesioa eta enplegurako trebetasunen garapena lantzen dituzte. 2023ko abenduan eta 2024ko urtarrilean egingo da.
 - Bigarren faseak, berriz, 10 hilabeteko ikas-ekinezko prestakuntza kontratu bat aurreikusten du, lan-erreformarako, enpleguaren egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretuak dioenari jarraikiz. Ikas-ekinezko prestakuntza kontratuaren iraupenaren % 35 prestakuntzarako izango da, eta % 65, berriz, enplegurako; hala ere, kontratatutako pertsonak jaso beharreko gutxieneko ordainsaria soldata gordin osoaren % 75 izango da.
- Kontratatuek **langabezian egon behar dute, eta enplegu eskatzaile gisa izena emanda Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan**. Izena emateko data prestakuntza eta

enplegu ibilbidearen hasiera eguna baino lehenagokoa izango da. Betekizun horretarako, ez dira kontuan hartuko Lanbiden izena emanda dauden pertsonak, baldin eta zerbitzu eskatzaile badira.

- Langabeek **ez dute egon behar alta emanda Gizarte Segurantzako ezein erregimenetako langile gisa**, gutxienez lan harremana hasi aurreko egunetik.
- Parte-hartzaileek **Donostian erroldatuta egon beharko dute**, gutxienez prestakuntza eta enplegu ibilbidea hasi aurreko egunetik. Gutxienez prestakuntza eta enplegu ibilbidea hasi aurreko egun berean eta aurrekoan erroldatuta daudela frogatzen dutenak bakarrik izango dira baliozkoak. Erroldatze hori ezin da izan erakunde onuradunarekin edo harekin loturiko beste zernahi erakunderekin loturiko helbide batean, betiere Gipuzkoako sozietateen gaineko zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 42. artikuluan aurreikusitako baldintzetan. Era berean, baldintza hori betetzeko, ez dira kontuan hartuko Donostian kontratatuko den pertsonaren alde z aurreko erroldatzeak, edozein arrazoirengatik eten badira.

Lehentasun berezia izango dute Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta/edo Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera jasotzen dutenek eta hiriko iraupen luzeko langabeek.

Programa hobeto gauzatzeko aldera, Donostia Sustapenak berea du adierazitako datak aldatzeko eskubidea.

5. ARTIKULUA. PARTE HARTZAILEENTZAKO ZUZKIDURA EKONOMIKOA

Programan parte hartzen dutenek Donostia Sustapenaren diru zuzkidura bat jasoko dute programaren hasierako fasean.

Proiektuaren hasierako faseak 2 hilabete iraungo du, eta gaitasun soziolaboralean soilik izango du prestakuntza. Fase horretan, pertsonak kontratuaren aurreko prestakuntza jasoko dute, eta talde kohesioa eta enplegurako trebetasunen garapena landuko dituzte.

Aldi horretan, enpresek alde z aurretik hautatzen dituzten pertsonak egunean 9 euro jasoko dituzte, enplegua sustatzeko pizgarri gisa eta prestakuntzan parte hartzen duten egun bakoitzeko, dieta eta garraio gisa, besteak beste (kalkulatzen da 40 eguneko prestakuntza zenbatuko dela).

Proiektuan parte hartzen duten pertsonak, baldin eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta/edo Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera jasotzen badute, dagozkien baldintzetan jarraituko dute prestazio hori jasotzen.

Ondoren, ikas-ekinezko prestakuntzaren fasean, parte hartzaileek ordainsari bat jasoko dute enpresa kontratatzailearen aldetik. Ordainsariari dagokionez, ikas-ekinezko prestakuntzako kontratuarentako eta aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan ezarritakoa izango da, eta soldata hitzarmenaren % 75ekoa izango da.

Kontratuaren fasean, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradun diren parte hartzaileek dagozkien baldintzetan jasoko dituzte enplegurako pizgarriak, horretarako eskubidea badute.

6. ARTIKULUA. PROGRAMAN PARTE HARTZEKO ESKAERA

Programan parte hartu nahi dutenek Lanbide.eus webgunean argitaratutako eskaintzetan izena eman beharko dute. Eskaintza horiek REAKTIVA-T PROGRAMA. HIRIA BERRONERATZEKO ALTZAKO KOLEKTIBOAK testuarekin daude identifikatuta.

Donostia Sustapenak izena emateko prozesuan lagunduko die hala eskatzen duten pertsonei. Horretarako, Donostia Sustapenarekin harremanetan jarri beharko da, 943 482 800 telefonora deituta edo fomentoss@donostia.eus helbidera idatzita.

2. KAPITULUA.- PROGRAMAN PARTE HARTZEN DUTEN LANGABEAK KONTRATATZEKO LAGUNTZAK

Kapitulu honetan, enpresek parte hartzeko baldintzak, betebeharrak eta prozedurak artikulatzen dira, baita laguntza ematekoak eta ordaintzekoak ere.

7. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Donostia Sustapenak EHUN ETA BERROGEI MILA EURO (140.000 €) bideratuko ditu laguntza horietara. Zenbateko hori aldatu ahal izango da, Donostia Sustapenak hala erabakiz gero.

8. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Laguntzaren onuraduntzat hartuko da dirulaguntza ematea eragin zuen jarduera gauzatu behar duena edo laguntza ematea legitimatzen duen egoeran dagoena, betiere oinarri hauetan jasotako baldintzak betetzen baditu.

Laguntzen onuradunak pertsona fisikoak edo juridikoak izango dira, publikoak edo pribatuak, nazionalak edo atzerritarrak, baita aurrekoen nortasunik ez duten taldeak ere, baldin eta oinarriotan zehaztutako eskakizunak biltzen dituzten ordenamendu juridikoaren arabera eratuta badaude. Bazterturik geratzen dira ondare sozietateak; hots, Gipuzkoako Lurralde Historikoko sozietateen gaineko zergaren urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 14. artikuluan zehaztutakoak.

Oinarriotan zehazten dira laguntzak eskatzeko bete behar diren eskakizunak, baita eskakizun horiek egiaztatzeko modua ere; halaber, nahitaez bete beharko da Dirulaguntzen Lege Orokorreko 13. artikuluan aurreikusitako guztia, zeina berariaz aplikatzekoa izango baita ondore hauetarako.

Pertsona fisiko edo juridikoek ezingo dute laguntza jaso:

- Ez baldin badituzte egunean zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean den legeriak ezartzen duen moduan.
- Dirulaguntza eta/edo laguntza publikoak lortzeko aukera ukatzen dien ebazpen irmo baten bidez zehatuta badaude, edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean badaude, barnean harturik sexu diskriminazioa egiteagatik zigortu dituztenak, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan xedatutakoaren arabera; era berean, ezingo dira izan laguntza eta dirulaguntza horien onuradun sexuagatiko bereizkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zehapen administratibo edo penala jaso duten pertsona fisikoak, betiere zehapen horretan

ezarritako epean. Era berean, ezingo dute jaso laguntzarik edo dirulaguntzarik berdintasun plan bat indarrean ez daukaten enpresek, baldin eta estatuko araudiaren arabera horretara beharurik badaude, ezta 50 langile baino gehiagoko enpresek ere, baldin eta ez badute egiaztatu ezarri dituztela neurriak sexu jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu indarkeriak prebenitzeko eta halako egoerei aurre egiteko, guztia ere estatuko legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan ezarritakoaren arabera.

- Zorrak baldin badituzte Donostiako Udalarekin edo/eta Donostia Sustapenarekin.
- Itzultzeke baldin badituzte, erabat edo partzialki, aurrez eskuratutako laguntzak, harik eta egiaztatu arte bueltatu dutela itzuli beharreko zenbatekoa.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, interesdunek eskubidea dute dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak aurkeztu beharrik ez izateko. Gainera, administrazio jarduleak kontsultatu edo bildu ahal izango ditu dokumentu horiek, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu; kasu horretan, berak aurkeztu beharko ditu dagozkion ziurtagiriak.

Donostia Sustapenak, Donostiako Udalaren jabetzako elkarreragingarritasun aplikazioaren bidez, zuzenean kontsultatuko du jarraian zehazten den informazioa administrazio publiko eskudunekin, prozedura honetako ebazpena emateko eta ordainketak egin ahal izateko:

- Udalarekiko eta Donostia Sustapenarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duten ziurtagiriak.
- Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean edukitzearen ziurtagiriak.
- Onuradunaren ekonomia jardueraren gaineko zergaren (EJZ) historikoa.
- Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean edukitzearen ziurtagiriak.

Dirulaguntza eta ordainketak eskatzen diren unean onuradunek ez badituzte egunean Udal Zerga Bilketak, Foru Ogasunak eta/edo Gizarte Segurantzak eskatutako ordainketak, egiaztatu egin beharko dute horiek betetzen dituztela; horretarako, HAMAR (10) egun balioduneko epea izango dute, jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita.

9. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIKO KONKURRENTZIA

Laguntza horiek jarduera ekonomikoa duten pertsona fisikoei edo pertsona juridikoei ematea ez da izango bateragarria helburu eta aldi bererako emandako beste batzuekin, edozein administrazio edo erakunde publikok edo pribatuk emanak direla ere, izan estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak. Nolanahi ere, bateragarriak izango dira indarrean dagoen legeriaren arabera Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuoten hobariekin edo murrizketekin.

Agindu honetan ezarritako laguntzek Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 zenbakiko Erregelamenduan (EE) ezarritako *de minimis* arauak errespetatu dituzte (2013ko abenduaren 24ko Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratua; hain

zuzen ere, Erregelamendu hori Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua *de minimis* laguntzei aplikatzeari dagokio).

Oinarri hauetan adierazitakoaren arabera jasotako laguntzaren zenbatekoak ez du inola ere gaindituko diruz lagundutako jardueraren kostua.

10. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDUKO DIREN KONTZEPTUAK ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Enpresa onuradunek **HAMALAU MILA (14.000,00) EUROKO** laguntza jaso ahal izango dute ikas-ekinezko prestakuntzako 10 hilabeteko lanaldi osoko lan kontratu bakoitzeko. Kontratututako pertsonak jaso beharreko gutxieneko ordainsaria soldata gordin osoaren % 75 izango da, nahiz eta haien lan jarduera lanaldiaren % 65ekoa izan.

Enplegu eskatzaile gisa izena emandako langabeak kontratatuko dira, eta lehenetasun berezia izango dute Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta/edo Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera jasotzen ari direnek eta Donostiako iraupen luzeko langabeek, **igeltserotza eta pintura langile gisa**, proiektu espezifiko honen barruan: **REAKTIVA-T PROGRAMA. HIRIA BERRONERATZEKO ALTZAKO KOLEKTIBOAK, betiere lan jarduera eraikuntzaren sektoreko enpresetan garatzen badute eta proiektuak Altza auzoan egiten badituzte.**

Azken zenbatekoa ezingo da izan kontratatutako pertsonaren soldata kostuen eta Gizarte Segurantzaren kostuen % 100 baino handiagoa, kontratu amaierako kalte-ordainak barne, ez eta enpresaren konturako Gizarte Segurantzaren kuota baino handiagoa ere, dagozkion hobariak eta/edo kenkariak deskontatu ondoren.

11. ARTIKULUA. ENPRESA ONURADUNEK DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Oro har, enpresa onuradunek baldintza hauek bete behar dituzte deialdian:

Enpresa onuraduntzat hartuko dira pertsona fisiko edo juridiko pribatuak, jarduera ekonomikoa eraikuntzaren sektorean garatzen dutenak eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuak, betiere obrak edo proiektuak Donostiako Altza auzoan dituztenak.

Horretaz gainera, onuradun izan daitezke Euskal Autonomia Erkidegoan eraikuntzaren sektorean diharduten eta Donostiako Altza auzoan proiektuak dituzten irabazi asmorik gabeko fundazio, elkarte edo erakunde guztiak ere.

Ezingo dira onuradun izan:

- Mendeko entitateak eta sektore publikoko entitateen, irabazi asmorik gabeko erakundeen, ondare sozietateen eta/edo elkargo profesionalen % 25etik gorako partaidetzapekoak (sektore publikoko entitatetzat hartuko dira sektore publikoko kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. artikuluan bildutako entitateak; lege haren bidez, Espainiako ordenamendu

juridikora ekartzen dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak).

- Aldi baterako laneko enpresak.

12. ARTIKULUA. KONTRATATUTAKO PERTSONEN, ENPRESA ONURADUNEN ETA DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KONTRATUEN BALDINTZAK

Enpresa onuradunek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Onuradunek hautaketa prozesu bat gainditu beharko dute, zeina onuradunen, Donostia Sustapenaren eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren artean egingo baita. **Horretarako, 2023ko urriaren 1etik azaroaren 15era bitartean, onuradunek izena eman beharko dute** enpresek. Lanbideren webgunean igeltserotza eta pintura langile posturako argitaratzen dituzten eskaintzetan, eta, baldintzak betetzen dituzten hautagaietatik abiatuta, egokiak diren langabeak hautatu beharko dituzte Donostiako Sustapenarekin eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin batera, kontuan hartuta lehentasuna eman behar zaiela Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta/edo Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera jasotzen dutenei eta/edo iraupen luzeko langabeei.
- **Hautatutako pertsonen zerrenda 2023ko azaroaren 24a baino lehen** izan beharko dute prest.
- Formalizaturiko lan kontratuak 10 hilabete iraungo dute, **2024ko otsailaren 1ean hasi eta 2024ko azaroaren 30ean amaitu, lanaldi osoko ikas-ekinezko prestakuntzaren modalitatearen barruan**. Ikas-ekinezko prestakuntza kontratuaren iraupenaren % 35 prestakuntzarako izango da, eta % 65 enplegurako.
Programa hobeto gauzatzeko aldera, Donostia Sustapenak berea du adierazitako datak aldatzeko eskubidea.
- Kontratatutako pertsonak jaso beharreko gutxieneko ordainsaria soldata gordin osoaren % 75 izango da.
- Kontratuaren barruan, prestakuntza azpifasearekin koordinatu beharko dute lan jarduera enpresa onuradunaren koordinatzaile baten bidez. Koordinatzaile horrek eragiketarako kudeatu beharko ditu azpifase hauen artean:

PRESTAKUNTZAKO AZPIFASEA (lanaldiaren % 35): Kontratuaren 10 hilabeteetan, kontratatutako pertsonak eraikuntza eta obra zibileko 1. mailako fabriketako eta estalkietako igeltserotza eragiketa osagarrietarako profesionaltasun ziurtagiria eskuratzeko prestakuntza egingo dute (280 orduko iraupena), bai eta lanpostuari lotutako prestakuntza osagarria ere, Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloan. Donostia Sustapenak kudeatzen ditu biak, eta lanaldiaren % 35aren pareko ordu kopurua izango du.

LAN JARDUERAREN AZPIFASEA (% 65): Prestakuntza azpifasearen osagarri gisa, kontratatutako pertsonak enpresak erabakitzen duen lan jarduera egingo dute igeltserotza eta pintura alorreko langile okupazioan, eta Donostiako Ekialdeko Barrutiko eraikinen mantentze lanekin lotutako lanak gauzatuko dituzte.

Kontratatutako pertsonak baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Kontratatutako pertsonak hautaketa prozesu bat gainditu beharko dute, zeina onuradunen, Donostia Sustapenaren eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren artean egingo baita. **Horretarako, 2023ko urriaren 1etik azaroaren 15era bitartean eman beharko da izena, enpresa bakoitzak Lanbideren webgunearen bidez igeltserotza eta pintura langile posturako argitaratzen eta kudeatzen duen eskaintzan.**
- Parte hartzaileek enplegu prestakuntzako proiektuaren bi faseak egin beharko dituzte: prestakuntza eta kontratazioa, eta, horrekin batera, orientazio eta laguntza integrala eta pertsonalizatua emango zaie parte hartzaileei prozesu osoan zehar. Proiektu honen fase guztiek 12 hilabete iraungo dute.
 - Lehenengo bi hilabeteetan, hautaketaren ondoren, hasierako fasea izeneko prestakuntza egingo da lan kontratuaren aurretik, zeina Donostia Sustapenak egingo baitu. Hasierako fase horrek 2 hilabete iraungo du, eta gaitasun soziolaboralean trebatzeko soilik izango da. Fase horretan, pertsonak kontratuaren aurreko prestakuntza jasotzen dute, eta talde kohesioa eta enplegurako trebetasunen garapena lantzen dituzte. 2023ko abenduan eta 2024ko urtarrilean egingo da.
 - Bigarren faseak, berriz, 10 hilabeteko ikas-ekinezko prestakuntza kontratu bat aurreikusten du, lan-erreformarako, enpleguaren egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretuak dioenari jarraikiz. Ikas-ekinezko prestakuntza kontratuaren iraupenaren % 35 prestakuntzarako izango da, eta % 65, berriz, enplegurako; hala ere, kontratatutako pertsonak jaso beharreko gutxienezko ordainsaria soldata gordin osoaren % 75 izango da.
- Kontratatuek **langabezian egon behar dute, eta enplegu eskatzaile gisa izena emanda Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan**. Izena emateko data prestakuntza eta enplegu ibilbidearen hasiera eguna baino lehenagokoa izango da. Betekizun horretarako, ez dira kontuan hartuko Lanbiden izena emanda dauden pertsonak, baldin eta zerbitzu eskatzaile badira.
- Langabeek **ez dute egon behar alta emanda Gizarte Segurantzako ezein erregimenetako langile gisa**, gutxienez lan harremana hasi aurreko egunetik.
- Kontratatutako pertsonak **Donostian erroldatuta egon beharko dute**, gutxienez prestakuntza eta enplegu ibilbidea hasi aurreko egunetik. Gutxienez prestakuntza eta enplegu ibilbidea hasi aurreko egun berean eta aurrekoan erroldatuta daudela frogatzen dutenak bakarrik izango dira baliozkoak. Erroldatze hori ezin da izan

erakunde onuradunarekin edo harekin loturiko beste zernahi erakunderekin loturiko helbide batean, betiere Gipuzkoako sozietateen gaineko zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 42. artikuluan aurreikusitako baldintzetan. Era berean, baldintza hori betetzeko, ez dira kontuan hartuko Donostian kontratatuko den pertsonaren alde zuzeneko erroldatzeak, edozein arrazoirengatik eten badira.

- **Ezin izango dira kontratatu erakunde berean jarduera edo lanpostu berean 6 hilabete baino gehiagoz lan egin duten pertsonak.**

Lan kontratazioek baldintza hauek bete beharko dituzte laguntza jaso ahal izateko:

- Lan kontratua lanaldi osoa izango da. **2024ko otsailaren 1ean hasiko da, eta amaitu, berriz, 2024ko azaroaren 30ean.** Hala ere, kontratatutako pertsonak jaso beharreko gutxieneko ordainsaria soldata gordin osoaren % 75 izango da.
- Kontratuaren modalitateak **ikas-ekinezko prestakuntza** izan beharko du nahitaez.
- Kontratazioak diruz lagundutako aldian eta lanaldian iraun beharko du.
- Kontratutako pertsonak Donostiako Altza auzoan egin beharko dituzte lanak.

Programa hobeto gauzatzeko aldera, Donostia Sustapenak berea du adierazitako datak aldatzeko eskubidea.

LAN HARREMANA ALDEZ AURRETIK AZKENTZEA.

Salbuespen gisa, lan harremana dirulaguntzaren xede den aldia amaitu baino lehen azkentzen bada arrazoi objektiboengatik edo enplegatzailearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, murriztu egingo da dirulaguntzaren zenbatekoa, lan kontratuaren benetako iraupenaren proportzioan.

Azken justifikazioa aurkezteko gehieneko epea 60 egun naturalekoa izango da, kontratua amaitzen denetik zenbatzen hasita.

Laguntza justifikatzeko 18. artikuluan zehaztutako dokumentazioaz gainera, onuradunak hauek ere aurkeztu beharko ditu:

- Gizarte Segurantzaren baja arrazoituaren ziurtagiria.

Donostia Sustapenak eskatu ahal izango du lan harremanaren amaiera aurreratu justifikatzeko beharrezkoa den aparteko dokumentazioa.

Ez dira diruz lagunduko kontratazio hauek:

- Artikulu honetan deskribatutakoak baino iraupen edo lanaldi txikiagoko kontratazioak.
- Gipuzkoako sozietateen gaineko zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 42. artikuluan aurreikusitako moduan onuradunarekin loturirik duen edozein pertsona fisiko kontratatzea.

- Ezkontideak, 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko bikotekideak, gurasoak, seme-alabak edo alboko familiakideak (bigarren mailakoak) kontratatzea, edozein bidetatik lortua dela ahaidetasun hori, hala nola ahaidetasuna, odol-ahaidetasuna, ezkontza-ahaidetasuna, onuradun izatezko bikotea eratzetik edo adoptatzetik sortzen den harremana; era berean, ezingo dute dirulaguntza jaso onuradunarekin lotura dutela iritzitako pertsonen kontratazioek (lotura hori urtarilaren 17ko sozietateen gaineko zergaren 2/2014 Foru Arauaren 42. artikulua 3. apartatua dago jasota).
- Ikas-ekinezko prestakuntzarena ez den beste edozein kontratu modalitate.
- Ez da onartuko laguntza eskatu ondoren egindako kontratu luzapenik.

13. ARTIKULUA. ESKAERAK ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Parte hartu nahi duten enpresek Donostia Sustapenarekin jarri beharko dute harremanetan lan eskaintza Lanbiden argitaratu aurretik, eta, gainera, eskaera bat formalizatu beharko dute Donostia Sustapenaren webgunearen bidez, dagokion laguntza izapidetu ahal izateko.

Eskaerak aurkezteko epea oinarri hauen iragarkia Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen argitaratu —eta ondoren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) horien laburpen bat publikatu— eta hurrengo egunean hasiko da, harik eta baliabide ekonomikoak agortu arte, oinarriotako 7. artikuluan jasotako moduan —kasu horretan, Donostia Sustapenaren webgunearan argitaratuko da baliabideak agortu direla—, edo, bestela, deialdia amaitu arte, hau da, **2023ko azaroaren 15era arte**.

Eskaera egiteko epea amaitu ondoren, gerakinik badago edo zuzkidura ekonomikoa areagotzen bada, Donostia Sustapenak, egoki irizten badio, eskaera egiteko epea luzatu ahal izango du oinarri hauek aldatuta (kasu horretan, dagokion kanaletan argitaratuko da).

Eskaerak telematikoki aurkeztu beharko dira Donostia Sustapenaren webgunearan (www.fomentosanbastian.eus).

Edozein informazio edo kontsulta egiteko, 943 482 800 telefono zenbakira dei daiteke, edo fomentoss@donostia.eus helbide elektronikora idatzi, honako gai hau adieraziz: **REAKTIVAT PROGRAMA. HIRIA BERRONERATZEKO ALTZAKO KOLEKTIBOAK KONTRATATZEKO LAGUNTZAK**. Dagokion eskaera inprimakiarekin batera, oinarri hauetan eskatzen den dokumentazio guztia erantsiko da.

Eranskinak osorik bete beharko dira, eta behar bezala sinatuta egongo dira.

Laguntza ekonomiko hori eskatzeko interesa duten enpresa edo erakunde guztiek **dokumentazio** hau aurkeztu beharko dute:

1. **Eskabidea** eranskina.

2. **Banku datuei dagokien eranskina**, dagokion banketxeak zigilatua, edo banku agiri baliokidea.
3. **Deskribapen memoriaren eranskina**, informazio hau jasotzen duena:
 - a. hautaketa prozesuaz eta harremanaz arduratuko den pertsona;
 - b. eskatutako lanpostu kopurua;
 - c. igeltserotza eta pintura alorreko langilearen okupazioarekin lotutako lanak, ordutegia, lantokiaren zuzendaritza;
 - d. lan jarduera gainbegiratuko duen arduraduna, eta lan jardueraren egutegia, zeinak 10 hilabeteko kontratazioa aurreikusi beharko baitu, 2024ko otsailaren 1etik azaroaren 30era bitartean.
4. Pertsona fisikoa izanez gero, eskatzailearen NANA.
5. Pertsona juridikoa izanez gero, eskatzailearen IFKren kopia, eta, hala egokitzuz gero, ahaldunaren NANA.

Onuradunak erabat hartzen du bere gain egindako erantzukizunpeko adierazpen guztien egiazkotasuna, baita aurkeztutako gainerako informazio eta dokumentazioarena ere.

14. ARTIKULUA. ESKAERETAKO HUTSAK ZUZENTZEA

Donostia Sustapenak, dokumentazio guztia berrikusi ondoren, egiaztatzen badu ez dagoela osorik edo dokumenturen bat falta dela, eskatzaileari gehenez hamar (10) egun baliოდuneko epea emango dio dokumentazio falta zuzentzeko edo behar diren dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko dio, hala egin ezean, baztertu egingo dela eskaera, bestelako izapiderik gabe, eta, ondorioz, horren arabera ebazpena emango dela. Gainera, egoki irizten dionean, Donostia Sustapenak eskubidea izango du pertsona edo erakunde eskatzaileak aurkeztutako edozein dokumentu edo informaziori buruz egokitzat jotako argibide guztiak eskatzeko.

Zuzenketak posta elektronikoz jakinaraziko dira (onuradunak harremanetarako ematen duen helbide elektronikoan). (JAKINARAZPENETARAKO HELBIDE ELEKTRONIKOA). Dena den, web aplikazioan ere egongo dira eskuragarri jakinarazpenak, pertsona edo erakunde eskatzaile bakoitzaren espedientearen barruan.

Balizko zuzenketak egiteko eskatutako dokumentazioa hasierako eskaera egiteko erabili zen bide bera erabiliz aurkeztuko da. Ez da onartuko posta elektronikoz egindako zuzenketarik.

Laguntzak emateko edo ukatzeko, Donostia Sustapenak berriazko ebazpen arrazoitua emango du, oinarri hauetan ezarritako betekizun eta baldintza guzti-guztiak bete diren edo ez kontuan hartuta.

15. ARTIKULUA. LAGUNTZA IZAPIDETZEA ETA EBAZTEA

Eskaerak erregistro ordenaren arabera ebaluatu eta ebatziko dira, harik eta baliabide ekonomikoak agortu arte.

Eskatutako laguntzaren ebazpena emateko epea lau hilabetekoa izango da, eskabidea erregistratzen den egunetik zenbatzen hasita (epe horren barruan ez dira zenbatuko administrazio dokumentazioa zuzentzekoaldiak, epe eten egingo da orduan epea). Laguntza emateko ebazpena ezarritako epean ez jakinarazteak ez du ekarriko laguntza ematea.

Eskaera ebazteko, Donostia Sustapenak berrikusiko du aurkeztutako nahitaezko dokumentazioa. Laguntza ebazteko garaian, ez dira berrikusiko eskatu gabe aurkeztutako bestelako agiriak.

Laguntzak emateko edo ukatzeko, Donostia Sustapenak berriazko ebazpen arrazoitua emango du, oinarri hauetan ezarritako betekizun eta baldintza guzti-guztiak bete diren edo ez kontuan hartuta.

Ebazpenak posta elektronikoz jakinaraziko zaizkie eskatzaileei, eskabidearen eranskinean emandako helbide elektronikora (jakinarazpenetarako helbide elektronikoa). Web aplikazioan ere eskuragarri egongo dira, erakunde edo pertsona eskatzaile bakoitzaren espedientearen barruan, eta onuradunen zerrenda argitaratuko da.

Deialdi honi buruzko jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira —eskabidean jakinarazitako helbide elektronikoa baliatuz—, eta, gainera, webgunean ere egongo dira eskuragarri, erakunde edo pertsona eskatzaile bakoitzaren espedientearen barruan.

Emandako ebazpenarekin bat etorri ezean, alegazioak aurkeztu ahal izango dira gehienez ere hilabeteko epean, ebazpen hau ematen den egunetik zenbatzen hasita, eta Donostia Sustapenak zehazten duena beteko da. Hala egokituz gero, Donostiako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko dira bi alderdiak.

Era berean, aurrekontu falta dela-eta dirulaguntzarik gabe geratu diren pertsona fisiko edo juridikorik badago, Donostia Sustapenak erreserban dauden eskabideen zerrenda bat sortuko du, erregistroaren eta sarreraren hurrenkeraren arabera, etorkizunean aurrekonturik izanez gero, horiei laguntza eskaini ahal izateko.

16. ARTIKULUA. LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA

Laguntzak bi zatitan ordainduko dira.

Lehenengoa (emandako zenbatekoaren % 70) ondoren eskatzen den dokumentazioa aurkeztu ondoren egingo da.

- Kontratazio datuei buruzko eranskina.

- **Lan kontratuaren kopia**, bi alderdiek sinatuta eta orri guztiak jasotzen dituen. Baldintza hauek egiaztatu beharko dira: iraupena, lanaldia, lantokia, beteko duen lanpostua eta ordainduko den urteko soldata gordinaren zenbatekoa (eurotan).
- **Lan kontratua jakinaraztea.**
- Kontratutako pertsonaren **NAN/AIZren kopia**.
- **Izena emandako aldien txostena**, Lanbidek emana. Kontratazioaren hasieraren ondoren eman behar da dokumentua.
- **Langilearen Gizarte Segurantzako lan bizi osoa**, dirulaguntzaren xede den kontratua hasi ondoren emana. (Ez da onartuko enpresaren lan bizi osoa).
- Kontratuaren xede den pertsonaren **errola ziurtagiria**, Donostiako Udalak kontratazioaren egunaren ondoren emandakoa, edo kontratatutako pertsonak Donostia Sustapenari hori eskatzeko baimena ematea. («Kontratazio datuak» eranskinean jasota).

LEHEN ORDAINKETAREN AGIRIAK AURKEZTEKO EPEA:

Egindako kontratazioek gehienez ere hilabeteko epea izango dute aipatutako dokumentazioa aurkezteko, kontratazioaren datatik aurrera zenbatzen hasita.

Bigarren ordainketa (gainerako % 30a) kontratazioaren azken justifikazioaren ondoren egingo da.

Onuradunak agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

1. **Eranskina: Justifikazioa.**
2. **Amaierako memoria.** (Egindako zereginen deskribapena eta kontratatutako pertsonen ebaluazioa).
3. **Afiliatu baten lan bizi osoa buruzko txostena** dokumentua, kontratatutako pertsonari dagokiona, laguntza eskatzen den aldia eta lanaldian enpresan egon dela egiaztatzen duena.
4. Kontratutako pertsonaren **Besteren Konturako Langileen Kotizaziorako Datuen Txostena**, justifikazio aldia barnean hartzen duena.
5. **Nominen eta gizarte aseguruaren kopia** eta dagozkien ordainketak. (Langileak sinatutako nominak eta ordainagiria balio berdina izango dute).

BIGARREN ORDAINKETAREN AGIRIAK AURKEZTEKO EPEA:

Kontratua amaitu ondoren, **gehienez ere 10 eguneko epea izango da.**

Bi kasuetan, dokumentazioa telematikoki aurkeztu beharko da. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak. Era berean, eranskin guztiak osorik bete beharko dira.

Dokumentazioa aipatutako epeetan aurkezten ez bada, laguntza ezetsi egiten dela ulertuko da.

17. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Laguntzen onuradunek beren gain hartuko dituzte Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotako betebeharrak, eta, oro har, berariaz ezarritako obligazio hauek ere bete beharko dituzte:

1. Laguntza diruz lagundutako jarduerak egiteko erabiltzea.
2. Diruz lagundu daitezkeen gastuak justifikatzeko eskatutako dokumentazioa aurkeztea, ezarritako moduaren eta denboraren barruan.
3. Jasotako laguntzen aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, egiaztapen eta/edo ikuskapen jarduketak egin ahal izateko, betiere aplikatzekoa den araudian ezarritako epean.
4. Proiektua osatzen duten jardueren gastu eta diru sarrera guztiak kontabilizatzea.
5. Kontabilitate liburuak behar bezala eramatea, horretara behartuta egonez gero.
6. Egunean edukitzea zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
7. Laguntzak emateko kontuan hartutako edozein inguruabar subjektibo zein objektibo aldatu baldin bada, Donostia Sustapena jakinaren gainean ipintzea.
8. Emandako laguntzei buruz Donostia Sustapenak bere eginkizunak betez eskatzen duen informazio guztia jakinaraztea.
9. Helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk jasoz gero, Donostia Sustapena jakinaren gainean ipintzea.
10. Jasotako laguntza dela-eta Donostia Sustapenak dei ditzakeen jardunaldietan parte hartzea (proiektuen aurkezpena, jarduerak, emaitzen jarraipena, eta abar).
11. Laguntzaren xede den eskaeran aurkeztutako baldintzak aldatzen dituen edozein egoera gertatuz gero, Donostia Sustapena jakinaren gainean ipintzea. Donostia Sustapenari laguntzea, beharrezkoa izanez gero, egin ditzakeen finantza kontroleko eta egiaztapeneko jarduketetan, eta haren esku ipintzea eskatzen zaion informazio eta dokumentazio guztia.
12. Laguntzaren xede den jarduera gauzatzeko behar diren lizentzia eta baimen guztiak izatea.
13. Oinarri hauetako 3., 5. eta 6. artikuluetan adierazitako baldintzak betetzea.
14. EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanez) komunikazio euskarrietan (webgunea, sare sozialak, mailinga, megafonia, eta abar),

sustapen eta hedapen materialen edizioan, antolatutako jardunaldi eta ekitaldietan, eta abarretan.

15. Erakunde eskatzaileek aholkularitza eskatu ahal izango diote Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuari, testuak itzultzeko eta horiek zuzentzeko (gehienez ere 1.000 karaktere itzultzeko eta 9.000 karaktere zuzentzeko hilean), betiere zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak betetzen badira (<http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/eu>).

18. ARTIKULUA. LAGUNTZAK ITZULTZEA

Pertsona fisiko edo juridiko onuradunak jasotako laguntza ekonomikoa itzuli beharko du, baita diruaren legezko interesa ere —jarritako zenbatekoak ordaindu diren unetik—, honako kasu hauetan:

- Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharrak modu astunean eta/edo behin eta berriz bete ezean. Ez-betetze astuntzat eta/edo errepikatutzat joko da oinarri hauetako betebeharren bat edo batzuk behin baino gehiagotan ez betetzea; aurkeztutako edozein datu, ziurtagiri, txosten edo dokumentazio faltsutzea; eta/edo oinarri hauen esparruan jasotako laguntza osoa edo zati bat desbideratzea, aurreikusitakoak ez diren beste helburu batzuetarako.
- Laguntzaren xedea justifikatzeko betebeharra ez betetzea oinarri hauetan aurreikusitako baldintzetan, eta ez egotea behar adina justifikatuta.
- Onuradunaren jarduerari buruz egin daitezkeen egiaztatze eta ikuskatze jarduketei kontra egitea, aitzakiak jartzea, eragozpenak jartzea edo uko egitea, bai eta kontabilitate, erregistro edo dokumentu betebeharrak ez betetzea ere, baldin eta horren ondorioz ezin bada egiaztatu jasotako ekarpenei emandako erabilera, finantzatutako jardueren errealitatea eta erregularatasuna, edo edozein administraziok edo erakundek helburu bererako emandako dirulaguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak eskuratzea, izan horiek publikoak edo pribatuak, nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak.
- Jardueraren gainfinantzaketa gertatuz gero, gainfinantzatutako zenbatekoan.

Aurrekoa kontuan hartuta, une oro bete eta mantendu beharko dira laguntza hauek jaso ahal izateko eskatzen diren baldintzak. Bestela, Donostia Sustapenak laguntzak itzultzeko eskatu ahal izango du, aurreko paragrafoetan zehaztutako baldintzetan. Era berean, ez-betetze astunenen kasuan —hala nola datuak faltsutzea edo jasotako laguntza osoa edo haren zati bat desbideratzea—, Donostiako Sustapena SAK ahalmena izango du emandako laguntza baliogabetzeko eta, kasuaren arabera, jasotako zenbateko guztiak itzularazteko. Horretaz gainera, jasotako zenbatekoaren boskoitza ordainarazteko eskatu ahal izango du.

Laguntza itzultzeari dagokionez, Donostiako Sustapena SAK onuradunari jakinaraziko dio oinarriotan ezarritako arrazoiren bat gertatzen dela, ondoren deskribatutako baldintzetan.

Itzulketa laurogeita hamar egun naturaleko epean egin beharko da, Donostiako Sustapena SAK onuradunari artikuluko honetan aurreikusitako itzulketa arrazoiren bat dagoela burofax bidez bidaltzen dionetik zenbatzen hasita.

Era berean, eta aurreko paragrafoetan ezarritakoaz gainera, Donostiako Sustapena SAK berea du Donostiako Sustapena SAK eskaintako beste edozein laguntza edo onuratan BI (2) URTEKO epean parte hartzea galarazteko eskubidea, ikusiz gero pertsona fisikoek edo juridikoek ez dutela bete zabarkeriagatik oinarri hauetan ezarritako betebeharren bat, edo, haien jokabideak direla eta, fede onaren oinarrizko arauak urratu baldin badira.

19. ARTIKULUA. DATU PERTSONALAK BABESTEA

Datuak babesteko indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, jakinarazten da Donostiako Udalak tratatuko dituela ematen dizkiguzun datu pertsonalak, tratamenduaren arduradun gisa, eta kudeatu, berriz, Donostiako Sustapena SAK kudeatuko du informazioa, tratamendu-eragile gisa.

Laguntza eskaera izapidetzea eta kudeatzea da tratamenduaren helburua.

Tratamenduaren zilegitasun oinarria Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 6.1.e) artikulua da; halaber, tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren alde gauzatutako eginkizun bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak egikaritzeko: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriena; 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena; eta 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

Oinarri hauetan edo eskabide inprimaketan hala adierazten bada, nahitaezkoa izango da datu pertsonalei buruz eskatzen den informazioa ematea, eta datu akastunak emateak edo datuak ez hornitzeak eragotzi egingo du eskabidea kudeatzea.

Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradunek emandako datu pertsonalak estatuko edo nazioz gaindiko erakundeei laga ahal izango zaizkie, baldin eta laguntza horiek batera finantzatzen badituzte eta/edo Donostia Sustapenarekin batera kudeatzen laguntzen badute, hori erabat beharrezkoa denean eta emakida kudeatzeko soilik.

Era berean, jakinarazten da laguntzak emateak berekin ekarriko duela onuradunaren identifikazio datuak jakinaraztea edo lagatzea, eta, emandako laguntzaren zenbatekoarekin batera, Donostia Sustapenaren webgunean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko da.

Ez dago aurreikusita datu jakinarazpen gehiago egitea hirugarrenei, legeak hala agindu ezean, eta ez dago aurreikusita, era berean, datuen nazioarteko transferentziarik.

Tratamendu honen xede diren datu pertsonalak biltzeko garaian kontuan harturiko helburua betetze jarraitzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denbora guztian gordeko dira. Artxiboei eta dokumentazioari buruzko araudian ezarritakoa aplikatuko da.

Ukituriko pertsonak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea baliatu ahal izango dute hala dagokionean, baita araudi honetan aurreikusitako bestelako eskubideak ere. Horretarako, Donostiako Udaleko Udalinfo zerbitzuarekin ipini beharko da harremanetan (Easo 41, 2006 Donostia).

Zure eskubideak baliatzeko garaian ez badizute behar bezala erantzun, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango duzu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua, 01008 Vitoria-Gasteiz. Hala ere, aldeztu aurretik eta aukeran, harremanetan jarri ahal izango zara Datuak Babesteko Donostiako Udaleko ordezkariarekin: dbo@donostia.eus.

20. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Ematen diren laguntzak oinarri hauetan jasotako arauen arabera zuzenduko dira, eta, modu osagarrian, Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta hura garatzeko erregelamenduan jasotakoaren arabera (erregelamendu hori uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onetsia da), nahiz eta Dirulaguntzen Lege Orokorrean bildutako kudeaketa irizpideei eta lege horretako 20. artikulua bildutako informazio printzipioei dagokienez bakarrik izan —hori guztia lege horren 3.2 artikulua bigarren paragrafoaren arabera, hark zehazten baitu aplikazio hori—.

Bestela, Dirulaguntzen Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua aplikatzekoak izango dira oinarriotan lege testu horien berariazko aipamena egiten denean.

21. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENA

Indarrean jartzea eta onespina.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarriko dira, eta argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.

Eskabidea aurkezteak esan nahi du erabat onartzen direla oinarriak.

Erantzukizunetik salbustea.

Onuraduna izango da laguntzaren xede den jarduera egin aurreko edo ondorengo jarduketan ondorioz sortzen diren kalte pertsonal eta/edo materialen erantzule bakarra, eta Donostia Sustapenak ez du inolako erantzukizunik izango kontzeptu horiengatik.

Donostia, 2023ko urriaren 3a

Marisol Garmendia Beloqui

Ekologia, Osasun Publiko, Garapen Ekonomiko eta Enplegu zinegotzi ordezkaria